



Bertoita

etxebizitza

Aldacrak: Bertoitazarra
Ahozkoa: Bertóitte / Bertoitte sárra

“... la casería de Bertoita y sus pertenecidos radicantes en jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz... situada en la Cofradía de Ocango... ocupa una planta de setenta y cinco estados superficiales que equivalen a doscientos ochenta y cinco metros cuadrados y se compone con su piso llano de zaguan, dos cuadras, una de ellas pequeña, cocina y cuarto, en el piso principal dos cuartos y en el resto desban y pajar. Todas las obras de esta casa se hallan en estado regular...”
DJE 3/223 or. (1877)



43° 10' 15"

2° 33' 29"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Baserri honen gaineko lehen arrasto dokumentala 1704koa da, eta bertan Okango kofradia-
ren baitan agertzen den baserri bati erreferen-
tzia egiteko erabiltzen da izena. Baserriaren
izenari dagokionez, aldaketa gutxi jasan ditu.
Beti *Bertoita* formarekin ezagutu izan da, eta
ahozko transmisioan ere horrela mantendu
izan da, *Bertóitte*. Zenbait idatzitan behin baino
gehiagotan *Bertoitas* moduan jaso dira zonalde
honetan eraikitako etxebizitza bi hauek; baina,
izatez, bata *Bertoita* da, eta bestea *Bertoitagoikoa*.
Azken hori XX. mendearen erdialdean erre eta
berreraikia izan zen beste soro batean (**Ikus
Bertoitagoikoa**).

Aldaketa handiak jasan dituen baserri etxea da,
gaur egun hiru bizitzakoa dena, lehen bikoa ba-
zen ere. Bi bolumenez osatuta dago, ikusi batean
argi frogatu legez eta arretaz erreparatu ezker-
o, aspaldiko baserri zaharraren atarte erdia soma-
daiteke eskumako etxearen izkina batean. Izan
ere, egurrezko dintelari eusten zion zutikoak

han dirau oraindik. Beste guztia berriagoa da.
Eskumako etxea XIX. mende amaierakoa da,
bi solairutakoa eta ganbaraduna, lau ardatze-
tako baoen antolamendua daukana, egurrezko
dinteldunak hain zuzen. Atarte gaina du indar-
tua balkoiaren bitartez. Lau isuritako teilatua-
ren azpiko etxeak hormak margotuta ditu eta
harlandua kantaletan baino ez dauka. Ezke-
rraldekoak ere ertzak horrelakoak ditu, baina
XX. mende akaberan eraberritu zuten, bitan
banatuz. Batak fatxada luzitua du, ondokoaren
estiloan, egurrezko dinteldun baoekin eta lehe-
nengo solairuan, simetrikoki antzean, balkoi
txikia dauka. Ganbaran, balkoi sakona eta leihoak
teilatuaren kontra. Besteak, berriz, harria du
fatxadako protagonista, ganbaran adreilua na-
hiago izan arren. Baoen antolaketa bestearen
oso antzekoa da, baina burdinsarezko balkoia
dauka eta ganbaran, balkoiaren orde-
z, begiratoki arkuduna. Aldatsa aprobetxatuz, biek
daukate sotoa, XVI. mendean upategia zena.

toponimia

Koldo Mitxelena idatzi zuen holako izenetan ageri den -ita amaieraren atzean -ieta egon litekeela baina ez zuen segur-
tasunik eta maisuak ez bazuen guk are gutxiago. Berriz bada bat baino gehiago Besoita edo Arroita, esaterako. Gure
kasu honetan germanar jatorriko Bertus izena egon liteke pentsa genezake.